

Irizar i2e probatzen Marseillako RTMn

Ormaiztegin, 2014ko azaroaren 28an

Donostia, Bartzelona eta Madrilen ondoren Marseillak probatuko du Irizarren autobus % 100 elektrikoa datozen bi hilabeteetan.

Irizarrek Marseillako RTMren (Regie des Transports Marseillaise) eskura jarri du autobus % 100 elektrikoa bi hilabetez probatzeko asmoz. Azaroaren 24tik hirian dabil 83. linean, Kai zaharra eta Prado Viako biribilgunea Kennedy erlaitz ospetsuarekin lotuz. 83. linea Marseillako turistikoenetakoa da eta erabilienetakoa ere bai; beraz, oso egokia da autobus honentzat. Datorren urteko urtarrilaren 22 arte zerbitzu erregularra emango du.

RTM urrats sendoak ematen ari da 2013tik hiri barruko garraio publikoaren etorkizunerako, baina autobus % 100 elektriko bat probatzen duen lehen aldia da.

Aurkezpena gaur izan da, azaroaren 28an, RTMren instalazioetan. Han izan dira Pierre Reboud jn., RTMko Zuzendari Nagusia, Maxime Tommasini and., Administrazio Kontseiluko lehendakaria, eta Robert Assante jn., MPMko lehendakariordea, Garraio eta mugikortasun iraunkorreko ordezkaria.

Aurkezpenean nabarmendutakoak hauek izan dira::

Irizarren «i2e» autobus % 100 elektrikoa

Irizar i2e Taldearen teknologiarekin garatutako lehen hiri autobus integrala da. Une honetan estatuko bi hiritan dago proban: Donostian (2014ko uztailetik) eta Bartzelonan (abuztuaren 18tik). Irizar i2e 200 eta 250km-ko autonomia izateko diseinatuta dago eta karga bakarra egiten zaio egunaren bukaeran. Bost orduko kargarekin 14 eta 16 orduz gidatu ahal izatea bermatzen da.

Eragiketa datuak gaur egun:

Dbus-i entregatutako lehen ibilgailua Donostian

Uztailaren 23tik zerbitzua ematen Donostian

- 12 km-ko linea guztietan dabil
- Egindako kilometroak: 6000 km baino gehiago
- Jarduneko orduak egunean: 14 eta 16 ordu artean



TMBri entregatutako bigarren ibilgailua Bartzelonan

Abuztuaren 18tik zerbitzua ematen Bartzelonan

- 20. Linean dabil
- Egindako kilometroak: 6000 km baino gehiago
- Jarduneko orduak egunean: 15 ordu eta erdi.

Erronka bat berrikuntza arloan

- CO2 eta beste igorpen kaltegarri batzuk gutxitzea: hiriguneetarako egokia.
- Isilak: gauez ibiltzeko eta hiriguneetarako egokiak.
- "Made in Europe" teknologia

Iraunkorra eta ekoeraginkorra

- Igorpenik ez sortzeko sortua (zero igorpen),
- Urtean 88 tona CO2 igorpen murrizten laguntzen
- Urtean 33.000 litro erregai aurrezteak dakar
- Haren osagaiak ia erabat birzikla daitezke